



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaia Bizkaialde Fundazioa

1/2024 iragarkia, uztailaren 29koa, Bizkaia Bizkaialde Fundazioarena, zeinaren bidez argitara ematen baita kirol-klubei 2024/2025 denboraldirako edo 2025. urterako dirua emateko deialdia

Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren Patronatuak, 2024ko martxoaren 19an eginiko bilera batean, erabaki zuen deialdi baten oinarri arautzaileak onartzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko kirol-klubei dirua emateko, beren taldeak maila gorenetan mantentzen laguntzeko.

2024ko ekitaldian, Fundazioak milioi bat hirurogeita hamabost mila euro (1.075.000 euro) bideratuko ditu, gehienez, diru-emate horietara.

Iragarki honen bitartez, argitara ematen da Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren diru-emate horien 2024ko deialdia.

Bilbon, 2024ko uztailaren 29an.—Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren Presidentea, Leixuri Arrizabalaga Arruza



BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAK KIROL KLUBEI 2024/2025 DENBORALDIAN EDO 2025. URTEAN DIRUA EMATEKO DEIALDIA

Bizkaia Bizkaialde Fundazioa 2000. urtean sortu zen, Bizkaiko eliteko kirola sustatzeko eta garatzeko euskarri eraginkorra izan nahian; izan ere, elkartearen helburuetariko bat da Bizkaiko klubek lehiakortasun mailarik handienak eskuratzeko aukerak izatea eta horiei eustea, baldin eta estatu mailako lehiaketetan euren kabuz egoera nabarmenetara iristea lortu badute. Gauzak horrela, fundazioak argitaratu nahi du 2024an Bizkaiko Kirol Klubei diru entregak emateko deialdi hau.

1. Xedea

Deialdi honen xedea kirol klubei diru entregak emateko deialdia egitea da, taldeek kategoría gorenei eusteko aukerak izan ditzaten.

Deialdi honen ondorioetarako, hauek dira kirol-klubak: elkarte pribatuak, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak, pertsona fisiko edo juridikoek osatutakoak, kirol modalitate bat edo batzuk praktikatu eta sustatzea helburu dutenak, kirol-lehiaketetan parte hartuta edo parte hartu gabe (Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren, martxoaren 30eko 2/2023, Legea, 29. Artikulua), eta Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundearen Erregistroan erregistratuta egon behar dute.

Deialdia bi multzotan banatzen da:

- Liga sistemadun lehiaketetan parte hartzen duten kirol modalitateetako klubak
- Liga sistema ez daukaten lehiaketetan parte hartzen duten kirol modalitateetako klubak

2. Eskabideen aurkezpena

Aurkezteko lekua: Hemen aurkeztu beharko dira: Kirol Etxea, Martín Barua Picaza kalea 27, 5.solairua 501 bulegoa.

Aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea 2024ko irailaren 23tik urriaren 16ra bitartekoa da, biak barne.

3. Irizpide Orokorrak

3.1. Eman beharreko entregan kopurua zenbatutakoan, gerta daiteke jasotako eskabide kopuruagatik edo bestelako zirkunstantziengatik ezinezkoa izatea laguntzen zenbatekoan ezarritako gehienezko kopurua lortzea ezarritako aurrekontu mugak direla eta; halakoetan, bada, laguntzak hainbanatuko dira jasotako eskaeren artean.

3.2. Liga sistema erregularra duten lehiaketetako kirol-modalitateetan parte hartzen duten taldeak dituzten klubei dagokienez, profesionalak ez diren kiroletako estatu mailako bi kategoría gorenako batean dauden taldeei emango zaizkie emateak, betiere kategoría horretara kirol-merezimenduak direla-eta iritsi baldin badira.

Salbuespen gisa, estatu mailako kategoría goreneko liga bakarra badago eta liga irekia bada, Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren dirulaguntzak jasotzeko beharrezkoa izango da ligaren lehiaketa guztietan parte hartzea eta lehenengo hiru postuen artean sailkatzea.

Inola ere ezin izango da Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren laguntzarik jaso plaza eskuraketa edo erosketaren bidez lortu bada.

3.3. Kirol modalitate/diziplina bakoitzeko laguntza bat besterik ez da emango, hau da, taldea kategoriarik altuenean izango duen klubari baino ez, beste guztiak baztertuz; talde bat baino gehiago kategoría berean egonez gero, laguntza guztiek eskuratu ahal izango dute.

3.4. Ohiko liga sisteman lehiaketarik ez duten kirol-modalitateetako taldeen klubei dagokienez, soilik Espainiako Txapelketako podiumean egon direnei eta/edo nazioarteko federazioaren egutegiko lehiaketa ofizialetan podiumean geratutako taldeei emango zaie diru entregak, betiere merituek egiaztatzen diren diziplinaren barruan.



Salbuespenez, Sokatira taldeei dagokionez, Espainiako Txapelketarik ez dagoen diziplina baita, dagokion nazioarteko federakuntzak antolatutako Europako Txapelketako eta Munduko Txapelketetako lehenengo lau postuetan sailkatzen diren taldeak onartuko dira.

3.5. Deialdi honen ondorioetarako, kirol jarduera profesionaltzat jotzen da:

– 1. eta 2. A. mailan dauden gizonezkoen futbola.

Gizonezkoen Futbol klubek/taldeek ezin izango dituzte Bizkaialderen laguntzak eskuratu.

– Lehenengo mailan dauden emakumezkoen futbola.

– ACB Ligan, gizonezkoen saskibaloian.

Bizkaialdeko laguntzak bakar-bakarrik eskuratu ahal izango dituzte AddecO Oro ligan parte hartzen duten gizonezkoen saskibaloiko klubek.

– Asobal ligan parte hartzen duten eskubaloiko taldeak.

Bizkaialdeko laguntzak bakar-bakarrik eskuratu ahal izango dituzte zilarrezko ohorezko mailako ligan parte hartzen duten eskubaloiko maskulinoko klubek.

– Areto futboleko liga nazionaleko 1. eta 2. mailako talde maskulinoak.

Areto futbol maskulinoko klubek/taldeek ezin izango dituzte Bizkaialderen laguntzak eskuratu.

Halaber, profesionaltzat hartuko da Kirol Kontseilu Gorenak profesionaltzat jotzen dituen lehiaketetako kirol-jarduera.

3.6. 2024/2025 edo 2025 denboraldirako diru sarrerak emateko Bizkaia Bizkaialde Fundazioari 2024an bideratutako aurrekontu esleipena milioi bat hirurogeita hamabost mila eurokoa (1.075.000 euro).

3.7. Aurreko denboraldietarako diru-laguntzen onuradun izan diren entitateek ez badute dirua jaso izana behar bezala justifikatu eta itzulketa-prozedura ireki ondoren ez badute hura gauzatu, ezingo dute laguntza hauetara sarbiderik izan, ez baldin badaukate itzulketa ordaintzeko fundazioak onartutako gerorapenik.

3.8. Entrenamendu eta/edo lehiaketetara joateko nor bere ibilgailuan ibilitako kilometroei dagozkien gastuak ez dira onartuko ez diru-ematearen zenbatekoa kalkulatzeko, ez zenbateko hori geroago justifikatzeko.

A. Liga sistemadun lehiaketak dituzten kirol modalitateetako klubak

1. Gutxieneko eta beharrezko baldintzak

1.1. Baldintza orokorrak:

a) Bizkaiko kluba izatea.

b) «Eliteko taldearen» lantaldeko %20 gutxienez harrobiko kirolariak izatea.

Ehuneko hori kalkulatzeko, taldea osatzen duten kirolarien gehienezko kopuruari dagokionez, kontuan hartuko da kirol modalitate bakoitzerako onartutako federazio araudia eta horrelakorik ez badago, fundazioaren patronatuak kalkulu haztatu bat egingo du kirol diziplina edo modalitate bakoitzaren kirol errealitatean oinarrituz.

Era berean, ondorio horietarako «harrobiko kirolaritzat» hartuak izango dira indarrean dagoen Bizkaiko lizentzia federatua duten kirolariak eta honakoak betetzen dituztenak:

– Bizkaian jaioak izatea, edo

– Bizkaiko klubetako haur eta kadete kategorietan egon izana, edo

– Bizkaian etengabe sei (6) urte baino gehiago bizitzen egotea.

Ehunekoa kalkulatzeko diru emateen deialdi honetara sarbidea ematen duen meritua edo meritua lortu dituen taldea osatzen duten kirolarien zerrenda hartuko da kontuan.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinetako modalitate eta diziplinen katalogoan aintzate-



tsitako modalitate edo kirol diziplinaren batean jardutea; kontuan hartu beharra dago Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren 2022ko otsailaren 10eko Agindu bidez kirol diziplina berriak onartu zirela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskineko modalitate eta diziplinen katalogoa eguneratu zela.

- d) Eskabidea aurkezteko epean ez da dopinagatik zigorturik egon behar.
- e) Eskabidea aurkezteko epean ez da behin betiko zigorturik egon behar diziplina edo administrazio bidean eta kirol diziplinan urratze larriagatik edo urratze oso larriagatik.

1.2. Betekizun bereziak

- a) Estatu mailako lehiaketetako bi kategoria gorenatariko batean parte hartzea.
- b) Laguntzak bakar-bakarrik estatu mailan bi kategoria gorenatariko batean dauden taldeei emango zaizkie, betiere kategoria horretara kirol merezimenduak direla-eta iritsi baldin badira, eta ez liga ireki bat delako edo plazaz jabetu edo plaza hori erosi dutelako.
- c) Kirol modalitate/diziplina bakoitzeko laguntza bat besterik ez da emango, hau da, taldea kategoriarik altuenean izango duen klubari baino ez, beste guztiak baztertuz.
- d) Talde bat baino gehiago kategoria berean egonez gero, laguntza guztiek eskuratu ahal izango dute.
- e) Liga erregularreko sistema duten lehiaketetan parte hartzea.
- f) Alegatutako meritu guztiak klubari dagokion 2023/2024 edo 2024ko denboraldi-koak izango dira betiere.

2. Atxiki beharreko dokumentazioa

2.1. Kirol erakunde eskatzaileak ondorengo dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- a) Eskatera inprimakia, S-1 Eranskin bezala atxiki dena.
- b) 2024/2025 denboraldiko edo 2025 urteko jardueren proiektua, honakoak izan behar dituena:
 - Denboraldi horretan parte hartzen dagoen edo parte hartuko duen lehiaketaren izena.
 - Bizkaialde taldearen lehiaketen eta entrenamenduen egutegia.
- c) Klubaren 2024/2025 denboraldiko edo 2025 urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu globala (eredu bezala atxiki da S-2a Eranskinean).
- d) Kategoria gorenean dagoen taldearen edo taldeen diru-sarrera eta gastuen aurrekontu espezifikoa, 2024/2025 denboraldiko edo 2025 urtekoa, eredu bezala atxiki den S-2b Eranskinari jarraiki aurkeztu beharko dena.
- e) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.
- f) Bizkaiko Federazioaren beharrezko egiaztagiria, kluba Bizkaikoa dela egiaztatuz.
- g) Kirol merituen akreditazioa, dagokion lurraldeko kirol federazioaren oniritziarekin. Alegatutako meritu guztiak klubari dagokion 2023/2024 edo 2024ko denboraldikoak izango dira betiere.
- h) Klubaren ordezkariaren zinpeko adierazpena, betiere honako hauek egiaztatuz: kluba ez dela dopinagatik zigorrik betetzen ari eta ez dagoela zigorturik diziplina edo administrazio bidean kirol diziplinako urratze larriagatik edo urratze oso larriagatik (S-3 Eranskina).
- i) Banku helbideratzearen fitxa, modu egokian beterik (S-4 Eranskina).
- j) Ogasunaren ziurtagiria, betiere zerga betebeharrak beterik daudela egiaztatzeko.
- k) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, betiere erakunde horrekiko betebeharrak beterik daudela egiaztatzeko.



- l) Taldeak estatu mailako bi kategoria gorenatariko batean parte hartzen duela egiaztatzen duen agiria, dagokion lurralde mailako kirol federazioaren oniritziarekin.
 - m) Deialdi honetan araututako diru-emateak eskuratu ahal izateko merezimendua edo merezimenduak lortu dituen lantaldeko kideen zerrenda (S-5 Eranskinak), eta, harekin batera, kirol-merezimendu bezala aurkezten duten lehiaketako taldearen inskripzio-orria eta plantillako pertsonen diptiko ofiziala.
3. Ebazteko irizpideak
- 3.1. Klub bakoitzari eman beharreko diru entregen zenbateko osoa kalkulatzeko ehuneko hauek hartuko dira oinarritzat:
- a. Aurkeztutako eskabidea onartuz gero:
 - a.1. Aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoaren gehienez ere %5 araztu ondoren, hamar (10) jardunaldi edo gutxiagoko liga sistemetako lehiak etetan parte hartzen duten taldeentzat.
 - a.2. Aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoaren gehienez ere % 15, araztu ondoren, hamar (10) jardunaldi baino gehiagoko liga sistemetako lehiaketetan parte hartzen duten taldeentzat.
 - b. Aurkeztutako aurrekontu osoaren %10 gehienez, araztu ondoren, emakumeen taldeak baldin badira.
 - c. Aurkeztutako aurrekontu osoaren 5%gehienez; araztu ondoren, honelako ezauzgarriak dituzten taldeak baldin badira:
 - Talde mistoak, edo
 - Desgaitasuna daukaten pertsonen osatutako taldeak, edo
 - Bertako kirol diziplinen edota modalitateen taldeak,
 - d. Harrobi kontzeptuan, honako ehuneko hauek:
 - Aurkeztutako aurrekontu osoaren %5 gehienez, araztu ondoren, taldeko lantaldearen %50 baino gehiago eta %75 arte harrobiko kirolariak badira.
 - Aurkeztutako aurrekontu osoaren %10 gehienez, araztu ondoren, betiere taldeko lantaldearen %75 eta %90 artean harrobiko kirolariak badira.
 - Aurkeztutako aurrekontu osoaren %15 gehienez, araztu ondoren, taldeko lantaldearen %90 baino gehiago harrobiko kirolariak badira.
- Harrobiko kirolari gisa hartuko dira Bizkaian indarrean dagoen federazio lizentzia daukaten kirolariak, eta:
- Bizkaian jaiotako edo
 - Haur eta kadete mailan Bizkaiko klubetan trebatu badira edo
 - Bizkaian etengabe sei (6) urte baino gehiago bizitzen baldin badaude.
- 3.2. Ehunekoa kalkulatzeko diru entregen deialdi honetara sarbidea ematen duten meritu(k) lortu duten taldea osatzen duten lantaldeko kirolarien zerrenda hartuko da kontuan.
- 3.3. Diru entregen zenbatekoa gehienez ere aurkeztutako aurrekontuaren %20koa izango da gizonezkoen taldeei dagokienez, %25ekoa gehienez ere talde mistoei dagokienez eta %30ekoa gehienez emakumeen taldeei, kirol autoktonoen eta kirol egokituen taldeei dagokienez; hori guztia hala izango da behin aurrekontua araztu eta gehienez ere gehienezko aurrekontu honen gainean kalkulaturik.
- 150.000 euro, hamar (10) jardunaldi edo gutxiagoko liga sistemetako lehiaketetan parte hartzen duten taldeentzat.
 - Kasu horietan, gehienez ere 45.000 euro emango dira klub bakoitzeko.
 - 325.000 euro, hamar (10) jardunaldi baino gehiagoko liga sistemetako lehiaketetan parte hartzen duten taldeentzat. Kasu hauetan, gehienezko kopurua 65.000 eurokoa izango da, klub bakoitzeko.

**4. Betebeharrak**

Laguntza hauen erakunde onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Bizkaia Bizkaialde Fundazioarekin publizitate babeseko hitzarmen bat izenpe-
tzea S-6 Eranskinean jasotako baldintzekin bat etorritz.
- b) Bizkaia Bizkaialde Fundazioak eskatutako informazio guzti-guztia ematea.
- c) Bizkaia Bizkaialde Fundazioak, Ogasun eta Finantza Sailak eta Herri Kontuen
Euskal Epaitegiak aurrera eraman ditzaketen egiaztapen jarduketak onartzea.
- d) Bizkaia Bizkaialde Fundazioari beste administrazio batetik edo nazio edo na-
zioarteko erakunde publiko batik helburu berbererako jasotako dirulaguntzak edo
laguntzak jakinaraztea.
- e) 5/2005 Foru Arauaren 13. artikulua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak
ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena.
- f) Emandako dirulaguntza justifikatzea, hauek aurkeztuz:
 - 2024/2025 denboraldiko edo 2025 urtean aurrera eramandako jarduera me-
moria bat honakoak izan beharko dituena: parte hartu duen lehiaketaren edo
lehiaketaren izena, lehiaketaren egutegia eta entrenamenduen egutegia.
 - Denboraldiari dagokion klubaren sarreraren eta gastuen likidatutako aurrekon-
tua, erantsitako J-1a Eranskinaren arabera aurkeztu beharko dena.
 - Bizkaialde taldeko eta/edo taldeetako denboraldiko sarreraren eta gastuen au-
rrekontu likidatua, erantsitako J-1b Eranskinaren arabera aurkeztu beharko
dena.
 - Bizkaialdeko taldeari edo taldeei (talde bakoitzeko bat) dagozkien gastu egiaz-
tagiriak eta beraien kontzeptuengatik zerranda antolatua, J-2 Eranskinetako
ereduak erabiliz.
 - J-2a) Eranskina. Hornidurak.
 - J-2b) Eranskina. Langileen gastuak.
 - J-2c) Eranskina. Bestelako gastuak.
 - J-2d) Eranskina. Finantza-gastuak.
 - Lekualdatze-eta mantenu gastuen frogagiriak egiteko, tiketak edo bidaia-txar-
telak aurkeztu beharko dira, horretarako J-3 Eranskina erabilita.
Ez dira inondik ere justifikazio gisa onartuko entrenamendu eta/edo lehiakete-
tara joateko nork bere ibilgailuan ibilitako kilometroei dagozkien gastuak.
 - Erakundearen diru-sarreraren zerranda. Horretarako, atxikita dauden J-4 Erans-
kinak erabiliko dira, hauek:
 - J-4a) Eranskina. Jardueraren diru-sarrerak.
 - J-4b) Eranskina. Finantza diru-sarrerak.
 - Jarduerak garatzerakoan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko klu-
bak egindako jarduketaren zerranda eta deskribapen laburra aurkeztea (J-5.
Eranskina).

Ematearen justifikazioa aurkezteko epea 2025eko irailaren 1etik 22ra arte
izango da.

5. Itzulketa

Jasotako laguntza eta hari dagozkion berandutza interesak itzuli behar izango ditu
onuradunak, baldin eta aurreko artikuluan ezarritako betebeharrak edo maiatzaren 31ko
5/2005 Foru Arauaren 33. artikulua (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen
araubide juridiko orokorra arautzen duena) ezarritakoak betetzen ez baditu; ez-betetze
horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke:

- a) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- b) Laguntza eman zen helburua ez betetzea.



- c) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskaturiko baldintzak bete barik.
- d) Jardueraren kostuaren aldean gehiegizko finantzazioa egonez gero, laguntza itzultzeko arrazoia ere izango da.
- e) Babes hitzarmenean jasotako ezarpenak ez betetzea.
- f) 2024an edo 2025ean dopinagatik zigortua izatea.
- g) 2024an edo 2025ean diziiplina edo administrazio arloan zigortua izatea urratze larriagatik edo oso larriagatik kirol diziplinari dagokionez.

Jasotako laguntza eta hari dagozkion berandutze-interesak itzuli behar izango ditu onuradunak dirulaguntza eman den denboraldian deialdi honetan araututako emateak jasotzeko beharrezko bezala zehaztutako baldintzak betetzeari utzi baldin badio.

6. Zehapen araubidea

Halaber, Onuradunak egiten badu Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. titulu-luko I. kapituluaren jasota dauden egite edo ez-egiteren bat, onuradunari zehapen-prozedura ireki ahal izango zaio, aipatu Foru Arauko 61. artikularekin bat etorruta. Prozedura hori izapidetuko da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean, eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean xedatutakoari jarraituz.

B. *Liga sistemarik gabeko lehiaketak dituzten kirol modalitateetako klubak*

1. Gutxieneko eta beharrezko baldintzak

1.1. Baldintza orokorrak.

- a) Bizkaiko kluba izatea
- b) Bizkaia Bizkaialde Fundazioak diru entregetara sarbidea izateko eskatzen duen kirol lorpena lortzeko lantaldeko «eliteko taldean» kirolarien %20 gutxienez harrobitik etorritako kirolariak dituen klub bizkaitarra izatea.

Ehuneko hori kalkulatzeko, taldea osatzen duen kirolarien kopuruari dagokionez, kontuan hartuko da kirol modalitate bakoitzerako onartutako federazio araudia eta horrelakorik ez badago, fundazioaren patronatuak kalkulu haztatu bat egingo du kirol diziiplina edo modalitate bakoitzaren kirol errealitatean oinarrituz.

Era berean, ondorio horietarako «harrobiko kirolaritzat» hartuak izango dira indarrean dagoen Bizkaiko lizentzia federatua duten kirolariak eta honakoak betetzen dituztenak:

- Bizkaian jaiotakoak izatea, edo
- Bizkaiko klubetako haur eta kadete kategorietan egon izana, edo
- Bizkaian etengabe sei (6) urte baino gehiago bizitzen egotea.

Ehunekoa kalkulatzeko diru emateen deialdi honetara sarbidea ematen duen meritua edo meritua lortu dituen taldea osatzen duten kirolarien zerrenda hartuko da kontuan.

- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinetako modalitate eta diziplinaren katalogoan aintzatesitako modalitate edo kirol diziplinaren batean jardutea; kontuan hartu beharra dago Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren 2022ko otsailaren 10eko Agindu bidez kirol diziiplina berriak onartu zirela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinetako modalitate eta diziplinaren katalogoa eguneratu zela.
- d) Eskabidea aurkezteko epean ez da dopinagatik zigorturik egon behar.
- e) Eskabidea aurkezteko momentuan ez da behin betiko zigorturik egon behar diziiplina edo administrazio bidean eta kirol diziplinari urratze larriagatik edo urratze oso larriagatik.



- f) Estatu mailan lehiaketaren kategoria gorenean parte hartzea. Kirol modalitate/diziplina bakoitzeko laguntza bat besterik ez da emango, hau da, taldea kategoriarik altue-
nean izango duen klubari baino ez, beste guztiak baztertuz; talde bat baino gehiago
kategoria berean egonez gero, laguntza guztiak eskuratu ahal izango dute.

1.2. Betekizun bereziak.

- a) Soilik Espainiako Txapelketako eta/edo dagokion nazioarteko federazioaren
egutegiko lehiaketa ofizialetako podiumean egon diren taldeei emango zaie di-
rria, betiere merituak egiaztatzen diren diziplinaren barruan.
- b) Salbuespenez, Sokatira taldeei dagokienez, Espainiako Txapelketarik ez da-
goen diziplina baita, dagokion nazioarteko federakuntzak antolatutako Europako
Txapelketetako eta Munduko Txapelketetako lehenengo lau postuetan sailka-
tzen diren taldeak onartuko dira.
- Arautegi honen ondoreetarako, honako hauek hartuko dira lehiaketa ofizialtzat:
lehiaketa eremuaren txapeldun titulua erabakiko den lehiaketak, hain zuzen ere.
- c) Alegatutako meritu guztiak klubari dagokion 2023/2024 edo 2024ko denboraldi-
koak izango dira betiere.

2. Atxiki beharreko dokumentazioa

2.1. Kirol erakunde eskatzaileak ondorengo dokumentazio hau aurkeztu behar
izango du:

- a) Eskaera-inprimakia, S-1 Eranskin bezala atxiki dena.
- b) 2024/2025 denboraldiko edo 2025 urteko jardueren proiektua, honakoak izan
behar dituena:
– Denboraldi horretan parte hartzen dagoen edo parte hartuko duen lehiaketa-
ren izena.
– Bizkaialde taldearen lehiaketen eta entrenamenduen egutegia.
- c) Klubaren 2024/2025 denboraldiko edo 2025 urteko diru-sarreraren eta gastuen au-
rrekontu globala (eredu bezala atxiki da S-2a Eranskinean).
- d) Espainiako Txapelketan eta/edo merituak egiaztatutako diziplinari dagokion na-
zioarteko federakuntzaren lehiaketa ofizialetan podiumean egon diren taldearen
edota taldeen diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, 2024/2025 denboraldiko
edo 2025 urteari dagokiona. Eredu bezala atxiki den S-2b Eranskinaren arabera
aurkeztu beharko da.
- e) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.
- f) Bizkaiko Federazioaren beharrezko egiaztageria, kluba Bizkaikoa dela egiaztatuz.
- g) Kirol merituen akreditazioa, dagokion lurraldeko kirol federazioaren oniritziarekin.
Alegatutako meritu guztiak klubari dagokion 2023/2024 edo 2024ko denboraldi-
koak izango dira eta taldean lortutakoak izan beharko dira. Halaber, modalitate,
diziplina, proba eta distantzia berari egokitu behar izango zaizkio.
- h) Klubaren ordezkariaren zinpeko adierazpena, betiere honako hauek egiaztatuz:
kluba ez dela dopinagatiko zigorrak betetzen ari eta ez dagoela zigorturik dizipli-
na edo administrazio bidean kirol diziplinako urratze larriagatik edo urratze oso
larriagatik (S-3. Eranskina).
- i) Banku helbideratzearen fitxa, modu egokian beterik (S-4. Eranskina).
- j) Ogasunaren ziurtagiria, betiere zerga betebeharrak beterik daudela egiaztatzeko.
- k) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, betiere erakunde ho-
rrekiko betebeharrak beterik daudela egiaztatzeko.
- l) Espainiako txapelketan lortutako postua eta/edo, merituak egiaztatzen diren di-
ziplinari dagokionez, nazioarteko federazioaren egutegiko lehiaketa ofizialetan
parte hartu duela egiaztatzen duen agiria, eskuratutako emaitza adieraziz.
- m) Deialdi honetan araututako diru entregak lortzeko eskuratutako meritua(k) iraba-
zi duen taldeko lantaldea osatzen duten pertsonen zerrenda (S-5. Eranskina).



3. Ebazteko irizpideak

3.1. Klub bakoitzari eman beharreko diru entregen zenbateko osoa kalkulatzeko ehuneko hauek hartuko dira oinarritzat:

- a. Aurkeztutako aurrekontu osoaren %15 gehienez, araztu ondoren, aurkeztutako eskabidea onartuz gero.
 - b. Aurkeztutako aurrekontu osoaren %10 gehienez, araztu ondoren, emakumeen taldeak baldin badira.
 - c. Aurkeztutako aurrekontu osoaren %5 gehienez, araztu ondoren, honelako ezau-garriak dituzten taldeak baldin badira:
 - Talde mistoak, edo
 - Desgaitasuna daukaten pertsonen osatutako taldeak, edo
 - Bertako kirol diziplinen edota modalitateen taldeak.-
 - d. Harrobi kontzeptuan, honako ehuneko hauek:
 - Aurkeztutako aurrekontu osoaren %5 gehienez, araztu ondoren, taldeko lantaldearen %50 eta %75 artean harrobiko kirolariak badira.
 - Aurkeztutako aurrekontu osoaren %10 gehienez, araztu ondoren, betiere taldeko lantaldearen %75 eta %90 artean harrobiko kirolariak badira.
 - Aurkeztutako aurrekontu osoaren %15 gehienez, araztu ondoren, taldeko lantaldearen %90 baino gehiago harrobiko kirolariak badira.
- Harrobiko kirolari gisa hartuko dira Bizkaian indarrean dagoen federazio lizentzia daukaten kirolariak, eta
- Bizkaian jaio badira edo.
 - Haur eta kadete mailan Bizkaiko klubetan trebatu badira edo
 - Modu jarraituan sei (6) hilabete baino gehiagoz Bizkaian bizitzen egotea.
- Ehunekoa kalkulatzeko diru entregen deialdi honetara sarbidea ematen duten meritua(k) lortu duten taldea osatzen duten lantaldeko kirolarien zerrenda hartuko da kontuan.

3.2. Laguntza bakar bat emango da kirol modalitate/diziplina eta sexu bakoitzeko. Ondore horietarako, kirol modalitatearen, diziplinaren edo probaren rankingari begiratu-ko zaio eta, halakorik ezean, emaitza eskuratu den kirol probaren mailari.

3.3. Diru entregen zenbatekoa gehienez ere aurkeztutako aurrekontuaren %20koa izango da gizonezkoen taldeei dagokienez, %25ekoa gehienez ere talde mistoei dago-kienez eta %30ekoa gehienez emakumezkoen, kirol autoktonoen eta kirol egokituaren taldeei dagokienez; hori guztia hala izango da behin aurrekontua araztu eta gehienez ere 150.000 euroko gehienezko aurrekontu baten gainean kalkulatuta.

Emango diren laguntzen gehieneko zenbatekoa 45.000 eurokoa izango da klub ba-koitzeko

4. Betebeharrak

Arautegi honetan araututako laguntzen erakunde onuradunek honako betebeharrak bete behar izango dituzte:

- a) Bizkaia Bizkaialde Fundazioarekin publizitate babeseko hitzarmen bat izenpe-teea S-6 Eranskinean jasotako baldintzekin bat etorritz. Bizkaia.
- b) Bizkaialde Fundazioak eskatutako informazio guzti-guztia ematea.
- c) Bizkaia Bizkaialde Fundazioak, Ogasun eta Finantza Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aurrera eraman ditzaketen egiaztapen jarduketak onartzea.
- d) Bizkaia Bizkaialde Fundazioari beste administrazio batetik edo nazio edo na-zioarteko erakunde publiko batik helburu berbererako jasotako dirulaguntzak edo laguntzak jakinaraztea.
- e) 5/2005 Foru Aruaren 13. artikulua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena.



- f) Emandako dirulaguntza justifikatzea, hauek aurkeztuz:
- 2024/2025ko edo 2025ko urtean aurrera eramandako jarduera memoria bat, hauek dituena: Parte hartu duen lehiaketaren edo lehiaketaren izena, lehiaketaren egutegia eta entrenamenduen egutegia.
 - Denboraldiari dagokion klubaren sarreraren eta gastuen likidatutako aurrekontua, erantsitako J-1a Eranskinaren arabera aurkeztu beharko dena.
 - Bizkaialde taldeko eta/edo taldeetako denboraldiko sarreraren eta gastuen aurrekontu likidatua, erantsitako J-1b Eranskinaren arabera aurkeztu beharko dena.
 - Bizkaialdeko taldeari edo taldeei (talde bakoitzeko bat) dagozkien gastu egiaztagiriak eta beraien kontzeptuengatiko zerrenda antolatua, J-2 Eranskinetako ereduak erabiliz.
 - J-2a) Eranskina. Hornidurak.
 - J-2b) Eranskina. Langileen gastuak.
 - J-2c) Eranskina. Bestelako gastuak.
 - J-2d) Eranskina. Finantza-gastuak.
 - Lekualdatze-eta mantenu gastuen frogagiriak egiteko, tiketak edo bidaiatxartelak aurkeztu beharko dira, horretarako J-3 Eranskina erabilita.
- Ez dira inondik ere justifikazio gisa onartuko entrenamendu eta/edo lehiaketetara joateko norik bere ibilgailuan ibilitako kilometroei dagozkien gastuak.
- Erakundearen diru-sarreraren zerrenda. Horretarako, atxikita dauden J-4 eranskinak erabiliko dira, hauek:
 - J-4a) Eranskina. Jardueraren diru-sarrerak.
 - J-4b) Eranskina. Finantza diru-sarrerak.
 - Jarduerak garatzerakoan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko klubak egindako jarduketaren zerrenda eta deskribapen laburra aurkeztea (J-5. Eranskina).
- Ematearen justifikazioa aurkezteko epea 2025eko irailaren 1tik 22ra arte izango da.

5. Itzulketa

Jasotako laguntza eta hari dagozkion berandutza interesak itzuli behar izango ditu onuradunak, baldin eta aurreko artikuluan ezarritako betebeharrak edo maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikulua (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena) ezarritakoak betetzen ez baditu; ez-betetze horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke:

- a) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- b) Laguntza eman zen helburua ez betetzea.
- c) Laguntza lortzea horretarako beharrezkoak diren baldintza guztiak bete gabe.
- d) Jardueraren kostuaren aldean gehiegizko finantzazioa egonez gero, laguntza itzultzeko arrazoia ere izango da.
- e) Babes hitzarmenean jasotako ezarpenak ez betetzea.
- f) 2024an edo 2025ean dopinagatik zigortua izatea.
- g) 2024an edo 2025ean diziplina edo administrazio arloan zigortua izatea urratze larriagatik edo oso larriagatik kirol diziplinari dagokionez.

Jasotako laguntza eta hari dagozkion berandutze- interesak itzuli behar izango ditu onuradunak dirulaguntza eman den denboraldian deialdi honetan araututako emateak jasotzeko beharrezko bezala zehaztutako baldintzak betetzeari utzi baldin badio.



6. Zehapen-araubidea

Halaber, Onuradunak egiten badu Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. titulu I. kapituluan jasota dauden egite edo ez-egiteren bat, onuradunari zehapen-prozedura ireki ahal izango zaio, aipatu Foru Arauko 61. artikuluekin bat etorruta. Prozedura hori izapidetuko da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean, eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko, 1/2023 Legena xedatutakoari jarraituz.



S-1. ERANSKINA / ANEXO S-1
KLUBEI DIRUA EMATEKO ESKABIDE IMPRIMAKIA
IMPRESO DE SOLICITUD DE ENTREGA DINERARIA A CLUBES

2024ko deialdia / Convocatoria 2024

Eskatzaileen datuak / Datos de la entidad solicitante	
IFZ / NIF	Sozietatearen izena / Razón social
Helbidea (kalea, plaza...) / Domicilio (calle, plaza...)	
Udalerría / Municipio	PK / CP
Telefonoa / Teléfono	Faxa / Fax
Posta elektronikoa / Correo electrónico	Web orria / Página web

Ordezkararen datuak / Datos de la persona representante		
IFZ / NIF	Deitura eta izena / Apellidos y nombre	
Eskatzailearekin harremana / Relación con la entidad solicitante		
Telefonoa / Teléfono	Sakelakoa / Móvil	Faxa / Fax
Posta elektronikoa / Correo electrónico		

Kirol taldearen datuak / Datos del equipo
Dirua zein talderentzat eskatzen den, haren izena / Nombre del equipo para el que se solicita la entrega dineraria
Dirua eskuratzeko behar den merezimendua gorengo zein kategoriatan edo lehiaketetan lortu den, haren izena: Nombre de la máxima Categoría o Competición en la que ha conseguido el mérito necesario para acceder a las presentes entregas dinerarias



S-2B ERANSKINA / ANEXO S-2B
BIZKAIALDE TALDEAREN GASTU ETA SARREREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE INGRESOS Y GASTOS EQUIPO BIZKAIALDE
2024/2025 o 2025

ERAKUNDEA / ENTIDAD:
BIZKAIALDE TALDEAREN GASTU ETA SARREREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE INGRESOS Y GASTOS DEL EQUIPO BIZKAIALDE
ALDIA / PERIODO: 2024/2025 o 2025

A) GASTUAK/GASTOS		B) SARRERAK/INGRESOS	
€		€	
1.	Hornikuntzak/Aprovisionamientos	1.	Erakundearen sarrerak, jardueraren ondoriozkoak / Ingresos entidad por actividad propia
a)	Jardueratarako ondasunak eta hornikuntzak erosita / Compras de bienes y aprovisionamientos para la actividad	a)	Erakundearen ekarpena / Aportación propia de la entidad
